

udaltop

**UDALETAKO  
EUSKARA  
ZERBITZUEN  
TOPAKETAK**



**IZENBURUA:**

**Begirale, begira egotetik ekitera.**

**EGILEA:**

**JOKIN LARRAÑAGA**

**DATA:**

**2015/04/01**



## Aurkibidea

1. Sarrera.....
2. Begirale: begira egotetik ekitera.....





## 1. Sarrera

---

2016ko Udaltop jardunaldien gai nagusia Kirola da eta egitarauak jasotzen duen bezala, izenburuak dio Kirola D ereduan, noizko? Nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko?

Ereduak eredu, garbi dago zer egin handia daukagula gure gazteak euskaraz (ere) biziko badira.

Kirola entzuten dugunean ematen du garbi asko dagoela noren ardura den eta nork eragin behar duen. Jardunaldion izenburuak ere zehazten du D ereduan aritzen direnei buruz arituko garela. Hortixe zalantzak sortu zaizkigu gure aurkezpena egiteko lekua eta jardunaldia hau ote den.

Eragileak hainbat gara/garbia hasiera hasieratik aipatzea komeni da, beharrezkoa baita, ikusiko dugun bezala (ez dut ulertzen); ikastereduak ez duela axola gazteak eta gaztetxoak (8-16 urte bitartekoak) lagunaren artean, kuadrillan, kalean kirolean ez baitira elkartzen edo sozializatzen ikastereduka edo esparruka, baizik eta beste arrazoi batzuegatik: kirol arrazoiagatik, besterik gabe?

Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuak bere II. Plan Estrategikoan (2013-2017) jorratzen dugun gaia Gazteria, Aisia, eta Kirola esparruan kokatzen du, eta testuinguru horretan kokatzen dugu gure lau urterako planifikazio linguistikoa, ezinbestez, elkarrengandik ezin direlako bereizi (nortzuk?), eragiteko orduan.

Gure benetako lana esparru bakar honetan (zergatik bakar?) zenbat eragilek parte hartzen duten identifikatzea da lehen urratsa eta bigarrena elkarrekin zer egin dezakegun aztertzea, aliantzak sortzea, talde lana osatzea.

Ikusiko dugun moduan, (lausoa eta aldakorra da) Gazteria, aisia eta kirol esparruan diharduten gazteen inguruan dakiguna, are gutxiago jardura horietan gertatzen den sozializazioaz, zein hizkuntzatan ematen den, zergatik...

Proposatu dugun Gidaren bitartez begiraleak, hezitzaileak entrenatzaileak, monitoreak erakarri nahi ditugu eta bere eguneroko egitekoan zer nolako garrantzia daukan bere jarrerak, bere euskararen erabilerak adierazi nahi diegu, euskararen normalizazioan ezinbestekoak ditugula jainarazi nahi diegu. (



## 2. Begirale: begira egotetik eragitera

### MARKOA

*8-16 urte bitarteko gaztetxoari eskolan euskara ikasi bitartean euskaraz bizi dadin esparruak euskaraz eskaintzea zor diegu, bestela ez da elebidun oso bihurtuko.*

•Udalekuetan eragiten hasi diru laguntza deialdien bidez 2011tik aurrera.

•Begirale elebidunak bermatu aisian Arabako udaletako aisialdian.

### EGOERAK KEZKA SORTU

AFA / EFZ / Kirol saila

•Eskolako gelan ikasitakoarekin ez da nahikoa, %16 bakarrik.

•Eskolako beste orduak gehituz gero, beste %14a gutxienez. (autobusa, jantokia, eskolaz kanpoko jarduerak, bazkaldu ondorengo tarteak, asteburuko jarduerak)

•Eraldaketa proposatu: Begiralea=entrenatzailea=HEZITZAILEA

•Formazioa eskaintzen hasi Aisialdiko enpresei eta begiraleei.

•Begiraleen formazioa eskaintza zabaldu lurraldean, tokian tokikoa egin.

•Arabako begiralearen ezaugarriak: elebiduna, gaztea oso, eskolan bizi da euskaraz batez ere, elebiduna neurri batean, hitz egiteko erraztasun gutxi, era informalean nekez, etxean ez du euskaraz hitz egiten, kalean ere gutxi, esparru batean baino gehiagotan da begirale

### LANTALDE LANEAN BATERATU(AEZ)

•Hezitzaileentzako GIDA bakarra sortu formazio saioetan zuzenago eragiteko. Aholkuak dira batez ere. Dagoeneko 3.000 ale banatu ditugu, begiraleei zuzenean ematen zaio gida

•Hainbat esparruetako begiraleei iradokizunak luzatu, begira egotetik eragitera animatu (coaching): begirale berritsua bihurtu, hizkuntza errutinak landu, hizkuntza jolasak eta talde dinamikak erabiltzera animatu. Zer egin eta zer EZ egin proposatu.

NON:• Gidak non eragin nahi du: Aisia, jantokiak, eskolaz kanpoko jarduerak, eskola kirola esparruak xede. Kirola esparru bat gehiago.

NOREKIN• Esparru bakoitzeko eragileekin elkarlanean; Berritzeguneak, Aldundiko eta udaletako arloetako teknikariak( euskara, kirola gazteria, soziokulturalak...), jantokietako enpresak ( Magji), Kirol Federazio eta Elkartek, Guraso elkarteak, Ikastetxeetako zuzendaritzak, aisia enpresak eta elkarteak, begirale eskolak...

NOREKIN BATERA



•Helburuak partekatu, elkarlana bultzatu, datu baseak sortzen hasi

•Planifikazio egoki bat egiteko datuak falta, usteekin eragiten hasi. Esparruetako egoeraren informazio ezak zalantzak sortzen ditu.

#### EGOERA ZEHATZ AZTERTU

•Egoeraren argazkia ateratzeko aliatuengana jo 2013an: Siadecoren ikerketa lana Araban barrena, Ulibarri programako ikastetxeek osatzen duten Gela argazkia, Arabako jantokietako egoera Magi enpresak luzatuta.

#### BERRIZ KEZKA SORTU

•Norbaitek badaki begirale berak zenbat ordu ematen dituen herriko ikastetxeko, kiroleko gaztetxoekin? Bakarrik esparru batean egiten du lan?

•Amaitzeko, nire esperientzia pertsonala: adibideak baino ez,

- AEKn futbito taldea sortu genuen ikasleon artean 1983an,
- Francisco de Vitoria institutuan 1988tik aurrera bi urtez, A eredu ikasle guztiak, 1000 inguru (gela guztiak) Euskal Herriko azokatarara eramaten genituen- Vasco Tour - eta elkarrizketak eginda itzultzen ziren.
- Gure semeen ikastolan pilota taldea sortu eta 60 neska-mutil izatera iritsi ginen, esan gabe doa dena euskaraz zela, modu naturalean, (seguru? Zu bai naturala, baina ez zen ohikoa. Agian pilota euskaldunen kirola delako... )
- Arabako pilota kirola ehuneko handi batean euskalduna da, eta egoera honek kanpotik etortzen direnak harritu egiten ditu oraindik ere.

**Euskaraz biziz** eragingo dugu, egunerokoan txertatuz, modu naturalean, egiten dugun hori euskaraz eginez eta euskarri buruz gutxiago hitz eginez.

Ikastolen Elkarteko leloa

Jon Sarasuak dio **Natural sentitzen dut / egiten dudana eta natural egin / sentitzen dudana.** Horixe da bidea

## 2.2. Gidaren atalak eta aholkuak

a) Oinarrizko irizpideak:

Zergatik sustatu euskararen erabilera

Zer egin beharko genuke

Zer ez genuke egin behar



b) Jardueren ezaugarrietara egokitutako proposamenak

Kirol entrenatzailea naiz

Kultura jardueretako irakaslea naiz

Musika irakaslea naiz

Aisialdiko hezitzailea naiz

Jantokiko hezitzailea naiz

c) Zenbait aholku eta tresna